

## Baratze biodinamikoa

Nekazaritza biodinamikoa lurren, landareen eta animalien arteko harremanetan oinarritzen den nekazaritza ekologikoaren modu bat da. Antroposofia sortu zuen Rudolf Steinerrek asmatutako nekazaritza mota bat. Nekazaritza modu honetan, berebiziko garrantzia du gure lursailak kosmosarekin duen harremanak. Lursail hau organismo bizi bezala ulertu behar da. Merkatuan produktu biodinamikoak "Demeter" markarekin identifikatuko ditugu.

Gure lursaila nekazaritza biodinamikoaren irizpideak bete ditzan, komeni da fruta-arbolak, zerealak... eta bertan, animali desberdinak izatea. Oinarrizko irizpide batzuk zehazten saiatuko gara gure baratzea baratze biodinamikoaren antzekoa izan dadin.

### **Prestakin biodinamikoaren erabilera**

Gorotz-prestakinaren aplikazioa (500) eta silizea (501). Lehenengoa, lurraren eta sustraien bizitza mikrobianoa indartzeko da, eta bigarrena, landareei ezaugarri argitsu bat emateko da, gaixotasunerako joera leuntzeko. Prestakin hauek oso modu zehatzean prestatu behar dira nekazaritza biodinamikoari buruzko liburuetan jasotzen den bezala.

### **Egutegi biodinamikoa**

Gure baratzean astroek eta ilargiak duten eragina jasotzen duen egutegia da: gure baratzean egin beharreko ekintza desberdinentzako egunik aproposena adierazten digu.

### **Konpost biodinamikoa egitea**

Konpost biodinamikoak konpostajearen alderdi teknikoak kontuan izateaz gain, (hezetasuna, C/N kopuruak, tenperatura...), praktika desberdinak gauzatzen dituzte konposta "dinamizatzeko". Horretarako, modu zehatzean aplikatzen diren prestakin biodinamikoak erabiltzen dira bizitza mikrobianoa aktibatzeaz gain, bizindarra bereganatzen laguntzen dute. Konposta egiteko erabiltzen diren prestakinak honako hauek dira: milorria (502), kamomila (503), asuna (504), haritza (505), txikoria-belarra (506) eta belar bedeinkatua (507).

## Huerta biodinámica

La agricultura biodinámica es un tipo de agricultura ecológica que se basa en la interrelación de los suelos, plantas y animales, creada por el creador de la antroposofía Rudolf Steiner. En este tipo de agricultura es de vital importancia la relación que tiene nuestra finca con el cosmos y tomar esa finca como un organismo vivo. En el mercado, los productos biodinámicos los podremos encontrar identificados por la marca “Demeter”.

Aunque para que nuestra finca se rija por los criterios de la agricultura biodinámica, además de la huerta, convendría tener árboles frutales, cereales... e incluso distintos animales, intentaremos precisar unos criterios básicos para que nuestra huerta pueda acercarse a una huerta biodinámica:

### Utilización de los preparados biodinámicos

Aplicación de los preparados de boñiga (500) y sílice (501). El primero está destinado a reforzar la vida microbiana del suelo y las raíces; el segundo, aporta una cualidad luminosa a las plantas atenuando la tendencia a las enfermedades. Estos preparados se deberán realizar de una manera muy precisa tal y como se especifican en diversos libros sobre agricultura biodinámica.

### El calendario biodinámico

Es un calendario donde se toman en cuenta la influencia de los astros y de la luna en nuestra huerta y nos indica cual es el mejor día para la realización de diferentes actividades de nuestra huerta.

### Realización del compost biodinámico

El compost biodinámico, además de tomar en cuenta los aspectos técnicos del compostaje (humedad, relación C/N, temperatura...), realizan diferentes prácticas para “dinamizar” el compost. Para ello, se utilizan diferentes preparados biodinámicos aplicados de una manera concreta que además de ayudar a activar la vida microbiana, también ayudan a concentrar las fuerzas vitales. Los preparados utilizados para realizar el compost son los siguientes: el de milenrama (502), manzanilla (503), ortiga (504), roble (505), diente de león (506) y valeriana (507).